

GAUXORIXA

(Gertaera barregarri bat)

Bazan Plaentxian Gautxorixa deitzen zetzen bat, gaberdi-zarrak baiño len etxera juaten ezekiana. Bere andria be, astua makillara letxe ein da euan.

Gautxorixa'ri alper-alperrik zan agirika eitia; da andriak, nai ta nai ez, obeidu biar izate eban. Inoiz auzuak, andriari, gizonarentzat libertade larregi ebala esaten zetzenian: «Alperrik Marixak makillatu, berez biar du», erantzutzen zetzen.

Diñuenetz: Bein, beste askotan moduan, berandu batian jo ei eban etxera. Baiña, Gautxorixa biotz oneko gizona zan. Bazekin, bere andriari be, andra guztieri moduan, jentiaeren jardunak min geiago emoten zetzela gizonaren parrandak baiño. Izan be gaurko andrentzat kanpoko itxurak dira ondo gorde biar diranak. Al iza-nezkeru alegintzen zan bere andria ta auzokuak konturatu barik etxian sartzen; olan, bere uestez, disgustu gutxiago izango ebala-ta.

Jaungoikuak daki ze ordu izango zan. Sartu zan etxeko peoran (ataia) da erantzi zituan oñetakuok eskillarretan zaratarik ez ataratzeko. Poliki-poliki igo zan eskillara-bururano ta ixil-ixillik asi zan euren etxeko atia zabaltzen. Berekautan esaten ei eban: «Gaur nere andriak pe ez najok sentiduko. Beti olan eingo banaukeuk bai gizona formala, auzuak pe ez litzakiaz jardunian ibiliko. Gaiñera zer ba, nori ardura biar jertzak ba nere ibillerak? Inun zorrik

eztoten artian nere diruekin nabik, ta kito». Leun-leun etxeko atia zabaldu eban, da zapatak eskuetan zitu-ala, sartu zan galtutzik. Berriz, itxizterakuan andriak diño oetik:

—Gautxorixa: lagaik atia zabalik, esneduna be oiñezkeru laster izango dok eta.

—Or ba nere sekretuok.

—Sekretuak diñok? Sekretuak? Ezkondu aurretik izan zituan ik sekretuak. Serenuen andrak pe bere gizonekin nik baiño lo geiago eingo dabiela uste juat.

—Da orrek emoten deun min? Ba, serenu sartuko non.

—Tira, tira, gizon. Petralkeririk esan barik. Trabeneriak ezjaukek serenu biarrik. I, trabenan larregi trabatzen aiz.

«Zintzoegia naizelako pasatzen jataz neri onelakuak», esaten eban Gautxorixak berekautan.

Urrengo egunian be or azaldu zan aurreko eguneko moduko orduren batian. Andriak diño:

—Baiña, gizon, ori dok xaxaria. Auzuak zer esango juek?

—Ixildu adi, andra, ixildu.

—Ixildu?...

—Baiña, ez al dakin zer pasau dan?

—Zer pasau dok pa?

—Amarrak inguruan trabenan gendela...

—Bai, an izan biar.

—Ba, trabenan gendela Patxiko ezton ba luze-luze jausi konortik barik. Guk izan jitonagu larritasunak.

Lelengo, automobil batian, Eibar'ko klinikara jaso jonagu. Ta, ango medikuak etsipena emon da onutz genkarrela bidian ezton ba il.

—Patxiko il? Sinistia be. Enee...!

—Bai, andra, il. Ezonan ba ain gizon txarra.

—Jesus! Jesus! Ori dok atsekabia. Petra bere andra kotxauak jaukak disgustua.

—Zer esanik pe ez ba. Petrak izango ezjon ba bere gizonagaitik disgustua. Bestaldera izan hazonan —andria iltzia—, biar bada Patxikok ez jonan izango ainbeste atsekabe.

—Zer ba?

—Ba, bardiña eztalako.

—Baiña, zer diñok?

—Ez..., ezebez, ezebez... Igarri barik urten jeztan da.

—Ai, ai, ai! Patxiko gizajua, gizon on utsa zuan da... —diño andriak buruari obatuta.

—Ona? A be trabenazalia zonan ba.

Biamonian, Gautxorixezia (Gautxori'ren andra) an juan zan auzoko andra guztieri autua eruatera.

—Gaztiak, entzun al dozue bart zer pasau dan!

—...!

—Patxiko il ei don, trabenan euan lekuan bertan-bera jausita.

—Ezton izango...! Jesus, Maria ta Jose!

—Ene bada! —beste batek—. Gijajo aundia. Biziotxoren batzuek izanarren ondo gizon ona zonan. Santuen lazkotxe biotza jeukanan.

—Orixe bai. Petra ezonan beti aiskide, baiña oin ikusiko jon gizonaren eza zer dan. Gure Errontaldokin be amaika aserre eindakua nintzonan parrandalaria zalako; baiña, zi-

ur nagon a on utsa Zeruetan izango dala, ziñuan alargunak.

Laugarren batek:

—Nik ezjonat ba il-kanpairik entzun.

—Gure gizon gizajua —diño Gautxorizexiak—, or ibili don gau guztian ara ta ona; medikuok, abadiok eta gainerrakuok aztartzen. Gure gizonan lako biotz onekorik ezton erreza billatzen. Eskerrak berak Petra'ri emon datsazen konsuelueri; bestela zoratuko ei zonan.

Errian zabaldu zan holo-bolo Patxiko'ren eriotzaren berria.

Eguerdirutz or agertzen da alarguna.

—I: Gautxorixezia, gizurra don gero Patxiko il dana.

—Eee...? Zer esateztan?

—Ba, bai; entzuten donana. Petra'ri naigabia emotera juanon eta an billatu jonat «Andra Madalen» kantatzen. Lotsari makala eruan jonat.

—Gure gizon madarikatu orrek oinbe sartu jeztan zirikadaren bat. Ezjakin gauzonik egiten, demontriak alakuak. Nik konponduko jonat.

Eguerdian eldu zan etxera Gautxorixa. Andriak betozkuakin esan zetsan:

—I burutik einda ago ala? Zer esan zeztan bart? Eure gizur ori dala-ta lotsari makala eruan juat. Erri guztiaren barregarri ipintzia pentsau al dok? Patxiko il dala... Patxiko ta i, ta i ta Patxiko, a ze pardel parria! Zer dala-ta asmatu eban gizur ori? Eure beranduko etorrera tapatziarren seguru.

—Tira, andra, tira andra; ezaitzez orrela jarri. Baiña, zelan sinistu zenduan ba? Kiñua ei netzuan barren.

SAN MARTIN'DAR YON